



Ipuin parekideak
online ikastaroa
3. edizioa

kalaka

Landuko diren gaiak:

- **Hezkidetzeta:** kokapena. Hizkuntzaren erabilera. Aisialdia.
- **Haur literaturaren garrantzia:** baloreak, rolak, estereotipoak.
- **Baliabideak:** gidak.
- **Ipuinen azterketa praktikoa:** nola lantzen dute parekidetasuna ipuin ezberdinetan?

Funtzionamendua:

- Ostegunetan emaila jasoko duzu zure sarrera ontzian eta aste osoa izango duzu edukiak lantzeko.
- Lau aste iraungo ditu ikastaroak.
- Edukiak deskargatzeko aukera izango duzu, beraz, momentu horretan lantzeko aukerarik ez baduzu, aurrerago ere landu ahal izango duzu. Zure erritmoan, ahal duzunean lantzeko ikastaroa da.
- Edukietan ariketak proposatuko dira baina norberak ahal dituen egiteko. Ikastaroak dirauen bitartean egiten badituzue, izan ditzakezuen zalantzak argitzeko prest izango gaituzue.
- Ez da azterketarik egongo. Helburua, zuek hausnarketara bultzatzea da, barnean aldaketa bat eragitea.
- Edukiek zati teorikoa badute ere, oso praktikoak dira: adibide ugari eta

bideoz lagunduta baitaude.

- Ziurtagiririk ez da ematen ikastaro honetan. Ikastaroa era librean egin ahal izateko antolatu dugunez, ikasleetako batzuk ikastaroko data ofizialak amaituta landuko dute, beste batzuk eguneratuta eramango dituzte gaiak; hori dela eta, guk ezin dugu ziurtatu ikasle guztiek gaiak era egokian landu dituztenik.
- Hala ere, norbaitek espreski ziurtagiria eskuratu nahi edo beharko balu, ikastaro hasieran emaila idatzi eta azalduko dizuegu zer egin beharko duzun ziurtagiria eskuratzeko.

Ikastaroaren datak:

- Otsailak 22: lehen modulua
- Martxoak 1: bigarren modulua
- Martxoak 7: hirugarren modulua
- Martxoak 15: laugarren modulua

Ikastaroa online izango denez, formakuntzak@kalaka.eus emaila zure kontaktuen zerrendan gehitu, mesedez, izen-ematetik aurrerako mezu guztiak sarrera ontzira iritsiko zaizkizula ziurtatzeko.

Animatu eta gozatu ikastaroaz!